



Getxo

ANDRÉS ISASI MUSIKA ESKOLA

bizi ezazu

MED

Musika Eskola Digitala

Zenb./Nº 17
Urtea/Año 2013
Urria/Octubre

AURKEZPEN-GIDA 2013-14

Ikasturtearen hasierarekin batera, honen Aurkezpen-gida eman dizuegu. Bertan, geure antolakuntza eta jardueren buruzko informazio baliagarria aurkituko duzue. Formatua aldatu diogu, erabilgarriagoa izan dezazuen. Esaiguzue zeintzuk diren interesgarrien iruditzen zaizkizuen arazoak. Web-orrian ere eskura izango duzue.

ORDIGARRIAK

Beken eta ikasteko gelen eskaerak

Ikasturte honetarako beken eta ikasteko gelen eskabideak betetzeko epea irailaren 18an zabaldu dela gogorutzen dizuegu, urriaren 4an amaituko delarik. Deialdiaren oinarriak eta bestelako informazioa eskura duzue Eskolako Administrazion eta Atezaindegian, baita bertako web-orrian ere.

Ikasturtearen lehen hilerokoaren ordainketa

Ikasturtearen lehen hilerokoa, urriaren bigarren hamabostaldiaren hasieran igorriko dizuegu. Dakizuenez, bertan matrikulatuta zaudeteneko irakasgaiei dagozkien tasen lehen kuota dago; matrikula uztaillan ordaindu ez duzuenen, lehen hileroko honetan gehituko zaizue dagozkie zenbatekoa.

ONGI ETORRIA

Irailaren 5ean eman diogu hasiera ikasturte berriari. Geure ongi etorria guztioi eta, ezer baino lehen, musika gurekin ikasi nahi izan duzuelako erakutsi diguzuen konfiantza eskertu nahi dizuegu. Zuen bizitzan musika zerbait garrantzitsua izan dadila nahi dugu, eta horretan dihardugu egunero. Zuen aldizkaria den Musika Eskola Digitala-k, hilabetero, geure zentroaren gertakari nagusien berri emango dizue. Era berean, geure irakaskuntza-estilo eta geure antolakuntzaren zenbait alderen garrantziaren inguruko hausnarketak ere bilduko ditu MED-ek

MUSIKA-TRENAREN HASTAPENAK

Urrian hasiko ditugu musika-tresnak ezagutzen hasteko saioak. Datorren urtean musika-tresna aukeratu behar duzuen ikasleei zuzenduta, beraien bidez gurekin ikas ditzakezuen musika-tresna gehienak ezagutzera emango dizuegu: biolina, biola, biolontxelo, kontrabaxua, flauta, oboea, klarineta, saxofoia, tronpa, tronpeta, tronboia, tuba, txistua edo akordeoia. Honekin, datorren urtean musika-tresnarekin has zaitetzten erabaki zuzenagoa hartzen lagundu nahi dizuegu. Saio-ziklo honek badu garrantzia handiko osagarria: datorren hilabetean hasiko dugun kontzertu didaktikoen zikloa; berri gehiago izango duzue honen inguruan MED-aren hurrengo alean.

BESTELAKO JARDUERAK

Urrian hasiko dira eskola-zinema saioak; Musika Eskolan bertan ematen dira astean zehar, adostuta dituzten eskolentzat. Kultur Etxeak, asteburuetan eman ohi dituen haur-zinema eta teatro-saioak berrabiaraziko ditu hilabete honetan.

UDAN ERE JARDUTEN

Iraila honetan, Musika Eskolako hiru talde izan dira geure herriko zenbait jaietan parte hartu dutenak.

Ostiralak 13an, Getxoko Gau Zuriaren ospakizunaren barnean, Musika Eskolako Bandak erreztaldia eman zuen Erromoko Santa Eugenia plazan. Leku berean, apur bat beranduago, Eskolako jazz-konboetako bat entzun ahal izan genuen.

Igandeak 22an, Mesedeetako jaien barnean, gure Eskolako txistulari-talde handi bat izan genuen Areetako Maria Kristina Erreginaren oinezkoen aldean animatzen, barraskilo-prestaketa lehiaketan zehar.

Zorionak guztiei emandako saioengatik.

AGENDA

Urria

Atxuriko Gizakundeko elizan, Bilbon, urriaren 19an arratsaldeko 8:15ean, Hamaika Kamerata Flauta-taldeak eta "Andrés Isasi" Akordeoi-taldeak, Beti Jai Alai Dantza-taldea eta Jatorki Abesbatzarekin batera, diziplina anitzeko ikuskizuna (musika instrumentala, korala eta dantza), eskainiko digute, abesbatza honek urtero antolatzen duen Agiña Memorialean. Kontzertu honetarako sarrea doan izango da.